

«Arabako Errioxan ikastolek funtsezko lana egin dugu euskara zabaltzeko»

Ketxu Bedialauneta (Ondarroa, Bizkaia, 1961) 1990eko hamarkadan iritsi zen Bastidako ikastolara, Arabako Errioxara. Irakasle gisa hasi zuen ibilbidea, eta hamarkada bat baino gehiago darma jada zuzendari. Gaur egun 132 ikasle eta ehun bat familia batzen ditu Bastidako ikastolak. Arabako Ikastolen Elkarteko sarearen parte da Bastidako ikastola, eta, Araba Euskaraz elkarren artean antolatatu badute ere, Bastidari tokatu zaio urte osoan lema nagusiari eustea. Pozarren dago eguna iristeko, eta nekea pilatua izan arren, gustura dago urteak emandakoarekin.

Noiz sortu zen Bastida Ikastola? Ikastola 1979an sortu zen, bederatzik ikaslerekin. Azken urteetan jaiotza tasaren beherakada izan da, baina eusten jarraitzen dute, leloak dioen bezala, etengabe.

Zertan ardatzen da hezkuntza proiektua?

Ikastolen Elkarteko materialarekin lan egiten dugu, eta ardatzean umea jartzen dugu. Nahi duguna da umea zaintzea, ikastolara gustura etortzea eta haren ongizatea babestea. Nahi dugu espazio honetan, ikasteaz gainera, gozatzea.

Zer esan nahi du Ikastolen Elkarteko materialarekin lana egiteak?

Esan nahi du bertako profesionalak egindakoa dela, eta etengabe berritzen ari direla. Gure material hori beste ikastetxe batzuek ere erosten dute gero.

Zertan oinarritzen da?

Proiektua egiten dugu lan. Hiru eremu ditugu. Izan proiektua, haur hezkuntzan lantzen dena. Kimu proiektua lehen, bigarren eta hirugarren mailan, eta gero Ekirekin lotzen dugu, LH 5 eta 6n. Azken horretan modu digitalean

KETXU BEDIAUNETA

Bastida Ikastolako zuzendaria

Arabako Euskaraz ospatuko dute gaur, Gasteizen. Bastida ikastolak hartu du lekuko nagusia aurten, eta zuzendaria pozarren da urteak emandakoarekin, «auzolana» zabaldu delako.

egiten dugu lan. Hirurak lotuta daude.

Beraz, Lehen Hezkuntzako eskaintza duzue?

Bai. Gure proiektuari jarraipena emateko, Lapuebla de Labarcarlo Assa ikastolara joaten ziren. Oso gazteak ziren, ordea, herriatik mugitzeko, eta akordio batera iritsi ginen Assa ikastolakoekin. Orduan, DBHI eta 2 ere Bastidan ematen dituzte, nahiz eta titularitasuna Assa ikastolarena izan. Bi gela ditugu Bastidan DBHI eta DBH2rako. Eta gero Assara joaten dira DBH3, DBH 4 eta Batxilergoa egitera.

Kooperatiba bat da. Zer esan nahi du horrek?

Familia unitateak dira kooperatibistak, eta, bozen bitartez, artezkaritza kontseilu batean parte hartzen dute. Kontseilu horretan, zuzendaritzarekin batera, gauza diferenteak proposatzen dituzte. Hilero elkartzen gara, eta hainbat gai eztabaidatzen ditugu. Haiek ere kontatzen digute beren esperientzia kanpotik ikusita, zeren askotan, barruan zaudenean, bakarrik zurea ikusten duzu. Kanpoko begirada hori eskertzen da, zeren hemen burokraziarekin itota maiz buru-belarri sartzen

gara, eta, kanpotik baten batek ideiarekin bat botatzen duenean, pentsatzen duzu: «Eta zergatik ez zaigu hau lehenago bururatu?». Eskertzen da kanpoko begirada hori.

Lantaldeak zer ezaugarri ditu? Gehienbat egonkorra da. Pentsa, ni 1991tik nago hemen lanean. Nire ikasle izandakoak lankide ditut orain; beraz, barrutik eza gutzen dute oso ondo ikastola. Eta haiek euren seme-alabak dituzte ikastolan. Oso pozgarria da hori.

Zer harreman du ikastolak herriarekin?

Ekinaldiak egiten ditugu beste



TREBIÑU
sagardotegia


Alegría - Trebiñu
www.trebiñu.com
945 44 53 85 / 945 72 15 93

**Etorri
Arabako
sagardotegietara!**

**Galdetu autobus
zerbitzuagatik**

TURRIETA
SAGARDOTEGIA

Alegría auzoa, 2 - Aramayo - 945 44 53 85 / 945 72 15 93
www.turrieta.eus - info@turrieta.eus



BERRIA

ikastetxeekin eta herriko eragileekin. Arabako Errioxan lana egiten duen elkarte bat ere badago, *Bitartean Jolasten* deitzen da, eta haiekin ere elkarlanean egin ditugu hainbat gauza. Ahalegintzen gara egun berezietan, Martxoaren 8an adibidez, gauzak elkarrekin lantzen.

Zure ustez, Arabako Errioxan zer funtzio bete dute ikastolek euskara biziberritzeko?

Uste dut izugarritzko lana egin dugula 45 urtean. Muga hiru ikastola gaude. Bastidakoaz gain, Assa ikastola Lapuebla de Labarcan, eta gero Oiongoa. Esango nuke Arabako Errioxan ikastolek funtsezko lana egin dugula euskara zabaltzeko, beste eragile batzuekin batera. Ez bakarrik Arabako Errioxako jendea euskalduntzeko: Burgosko eta Errioxako ikasleak ere baditugu.

Nola ikusten duzu euskararen egoera gaur egun Bastidan?

Ni ondarroarra naiz, eta han asko egiten dugu euskaraz. Hemen pena ematen didana da jende pilo bat euskaldundu baldin badugu ere gero jendeak ez duela euskara erabiltzen. Gero eta gutxiago erabiltzen da. Umeez ikastolako eremu barrurako hartzen dute hizkuntza, agian euskara oso formala erakusten dugulako, eta ez dakigulako euskara informala erakusten. Guri Ondarroan gertatzen zaigu gure euskara kalean informala dela. Nik zazpi urtera arte ez nekien gaztelaniaz hitz egiten. Hori falta zaigu. Era informala garatzea.

Araba Euskaraz-en lekulkoa hartu duzue aurten. Nola joan da urtea?

Polita izan da. Ekintza asko egin ditugu ekainaren 15era iristerako. Iaz hasi ginen aurkezpenarekin. Egin dira kontzertuak, pilota to-



«Pena ematen didana da jende pilo bat euskaldundu baldin badugu ere gero ez dela euskara erabiltzen»

«Kantak kontatzen du hainbat oztoporen eta debekuren gainetik beti egon dela su txiki bat eusteko»

paketak, abestiaren aurkezpena Mikel Urdangarin eta Kirmen Uriberekin, eta azken ekinaldia herrian egin dugu. *Etengabe* jaia ospatu genuen maiatzean, herriari keinu bat egiteko.

Herriak nola erantzun zuen?

Herri bazkari bat egin genuen, eta azkenean 340 lagunetik gora elkartu ginen, giro ezin hobean. Etxera oso pozik joan nintzen, leher eginda, baina irribarrea ezpainetan.

Zer geratzen da halako lan zama eskatzen duen urte baten ostean komunitatean?

Elkarlana, auzolana, laguntasuna, harreman sarea sendotzen ditu.

Aipatu duzu kanta: *Arbasoen su txikia*. Nola sartu ziren Mikel Urdangarin eta Kirmen Uribe kantaren prozesuan?

Kirmen Uribe laguna dut, eta kanta egin zezan eskatu nion joan den udan. Gero proposatu zidan Mikel sartzeko proiektuan. Bien artean aritu dira kanta osatzen. Letra izugarria da, eta kanta ere bai. Azkenean euskararen transmisioa kontatzen du. Kontatzen du hainbat oztoporen eta debekuren gainetik beti egon dela su txiki bat eusteko, eta gurea bezalako herri txikietan ere beti dago norbait euskarari eusten. Izan ditugun zapalkuntzak zapalkuntza, hemen segitzen dugu.

Nola dator Araba Euskaraz eguna?

Gonbidatuko nituzke euskaltzaileak Araba Euskaraz-era etortzera. Araban euskararen arnasgunea izango da.

Bertan biltzen den dirua nora bideratuko da?

Gure hezkuntza proiektuan txertatuko dugu. Eta umeen euskara maila hobetzeko proiektuetarako, besteak beste. ●

etengabe
arabaeuskaraz'25

ekar



Kultura eta aisialdian aukera
zabalena zure liburu-denda sarean